



GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERIA DE VITORIA-GASTEIZ



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Minbiziaren aurkako tratamenduen aurrean nerabe eta heldu gazteek ugalkortasunaren inguruan dituzten beharrak



Gradu Amaierako Lana

2020-2021 ikasturtea

Literaturaren berrikusketa kritikoa

Gasteizko Erizaintza Unibertsitate - Eskola

Egilea: Maddi Aztiria Galdos

Hitz kopurua: 5843

Data: 2021/04/09

Aurkibidea:

Sarrera:	3
Esparru kontzeptuala eta Justifikazioa:	4
Helburua:	9
Metodologia:	10
Emaitzak eta eztabaida:	15
Ondorioak eta inplikazioak:	25
Mugak eta zailtasunak:	27
Erreferentzia bibliografikoak:	28
Eranskinak:	33
1.Eranskina: Kontzeptu-taula	33
2.Eranskina: Bilaketa - taula	36
3.Eranskina: Irakurketa kritikorako gidoiak.....	43
4.Eranskina: Fluxu-diagrama	60
5.Eranskina: Laburpen-taula	61
6. Eranskina: Zuhaitz kategoriala.....	74
7. Eranskina.....	75
8.Eranskina	76
9. Eranskina.....	77
10.Eranskina.....	78

Sarrera:

1-Marko teorikoa eta justifikazioa: Minbizia osasun publikoan arazo gehien sortzen duen gaixotasunetariko bat da, nerabeengan %1,5eko prebalentzia duena Espainian. Adin tarte honetako pazienteek Kimioterapia edo/eta Erradioterapiaren ondorioz, besteak beste, gonada toxizitatea izateko arriskua dutela kontuan hartuta, obulutegi gutxiegitasuna, espermatogenesi prozesuaren asaldura eta disfuntzio sexuala eraginez, pazienteek zein ingurukoek, kezka, sentipen eta beldur desberdinak bizi ditzakete; osasun profesionalen aldetik behar gisa identifikatu eta asetu behar direnak sostengu jarraitua eskaintzen zaien bitartean.

2-Helburua: Minbiziaren aurkako tratamenduen aurrean (Kimioterapia edo/eta Erradioterapia) nerabe eta heldu gazteek ugalkortasunaren inguruan dituzten beharrak identifikatu eta aztertzea.

3-Metodologia: Literaturaren berrikusketa kritikoa eraman da aurrera; horretarako, Medline, Cinhal, Cochrane, Embase, Cuiden eta PsycINFO datu baseetan eta ASCO, NCCN eta ESMO Onkologiako orrialde ofizialetan, RNAO eta NICE ebidentzian oinarritutako orrialdeetan eta DOYMA aldizkari elektronikotan eskuzko bilaketak egin dira, 2010. urtetik aurrerako artikulak aurkitzeko. Modu honetan, 17 artikulua hautatu dira, ondorengo ikerketa motetan banatuak: 9 artikulua kualitatibo, 3 artikulua kuantitatibo, 2 artikulua mixto, literaturaren errebisio sistematiko 1 eta 2 Gida Kliniko.

4-Emaitzak eta eztabaida: Pazienteek informazio beharra daukate; bereziki ugalkortasun galera arriskua eta honi aurre egiteko alternatibetan zentratzen dena, formatu eta denbora mailakatuagoan eskaini behar izanez. Ingurukoekin dituzten erlazioek eskainiriko sostenguan, familia, guraso eta bikotea oinarrizko euskarri gisa aipatzen dira. Aurre-egite estrategietan berriz, arriskuaren aurrean dituzten aukerak baloratzea eta emozioen arteko konfrontazioa saihestea adierazten dira eta azkenik, asistentzialki hobetu beharreko zenbait alderdi nabarmentzen dira.

5-Ondorioak eta inplikazioak: Asetu gabeko beharren ezagupenean oinarrituta, paziente zaurgarrienen arreta eta fertilitatearen inguruko informazio osatua eskaintzearen ardura duten profesionalen rola bereizteko eta komunikazioa hobetzeko alderdiak daudela ondorioztatzen da. Horrela, asistentziaren kalitatea bermatzeko, osasun profesionaleri zuzenduriko jarraipen giden aplikazioa beharrezkoa ikusten da.

Esparru kontzeptuala eta Justifikazioa:

Minbizia bere baitan gaixotasun multzo anitz hartzen dituen gaixotasun orokor bat da, bere ezaugarri deskribatzaile nagusia zelula anormalen bikoizketa azkarra izanik, bere ohiko mugetatik at haztean, gorputzaren inguruko eremuak inbaditu edo urrunago dauden organoetara zabaldu daiteke¹.

Osasun publikoan arazo gehien sortzen duen gaixotasunetariko bat da Espainia mailan, gaur egun jaiotzetik 80 urte bitartean minbizia garatzeko arriskua gizonezkoetan %41,7koa izanik eta emakumeetan %27,3koa. Espainiako Estadistikako Inститutu Nazionaleko (INE) azken informeak dioenaren arira, 2018an minbizia bigarren heriotzakausa nagusia izan arren (%26,4), aurreko urteekin alderatuz tasa hau %1,3 jaitsi zen. Urteroko minbiziaren prebalentziaren handipena %6a izanda, hauen artean nerabeen minbizi kasuen prebalentzia %1,5ekoa dela kontuan hartzekoa da^{2,3}.

Minbizia diagnostikatu dieten 15-39 urteko nerabe eta heldu gazte hauek AYA laburduraz ezagutzen dira, ingelesezko *Adolescent and Young Adults* izenpean. Honen barnean, nerabeak 15-24 urte bitarteko gazteei deritze eta heldu gazteak berriz, 20 urtetik aurrerako gazteei ezartzen zaien terminoa da Nazio Batuen hitzetan. Ia adin tarte honetako 70.000 pertsoneri diagnostikatzen zaie minbizia urtero Estatu Batuetan, 15 urtetik behera diagnostikatutako pazienteak baino 7 aldiz gehiago; gehien erregistraturiko kasuen artean aurkituz kartzinoma, linfoma eta leuzemia kasuak. Hala ere, adin honetako pazienteen bizi-iraupen tasa handiagoa dela ikusi da helduagoak diren paziente eta paziente pediatrikoekin alderatuz; paziente hauen %81ak bizirik jarraitzen baitu diagnostikoa jaso eta 5 urteetara^{4,5,6}.

Paziente zehatz hauek behar espezifiko batzuk dituzte, minbiziak eguneroko bizitzan eta garapenean sortzen dien inpaktu disruptiboagatik. Izan ere, diagnostikoa mehatxu bat izan daiteke etorkizunerako, nerabearen eguneroko bizitza asalduz epe motz zein luzera, gaixotasunaren inpaktu, eboluzio eta tratamenduaren albo ondorioengatik, arlo fisikoa, ekonomikoa, soziala zein psikologikoa oztopatu baitezake. Beraien adineko beste edozein nerabeek bezala, etorkizuneko erronka izango diren berezko aldaketa fisiko eta psikologikoez gain, minbiziaren mehatxuari ere egin beharko diote aurre. Ohiko bizitza sozialarekin jarraitzeko zailtasuna izango dutela onartzeak, besteak beste, mugak sortu eta garapen prozesua oztopatu diezaieke^{7,8,9}.

Garapen honi jarraikiz, feminitate eta maskulinitate rolei lotuta, minbizidun gizonezko askok baloratzen dute ugalkortasun gaitasuna, eta emakumeek ere, biologikoki haurdun geratzearen garrantzia azpimarratzen dute. Datu hauek kontuan hartuta, aipatzekoa da minbizien %10 inguru, 45 urteen aurretik ematen dela eta emakumeen kasuan, diagnostikoen %25a erreproduzio plan bat hasi gabe dagoela egiten da. Azken urteetan lehen haurdunaldia izateko adina 30-35 urteen gainera atzeratu da eta Espainiako Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) adierazten duenez, 2018.urtean 18 eta 30 urte bitarteko emakumeen %88,1ak ez zuen haurrik izan oraindik, eta gizonen artean berriz, %95,1ak. Beraz, guraso izateko adinaren atzerapen honek, minbizia diagnostikatutako paziente gazteek oraindik haurrik ez izatea suposatzen du^{10,11,12}.

Ugalkortasun galera minbiziaren ondorio horietako bat da, modu ezkor batean eragin dezakeena adin emankorrean dauden paziente hauen bizi kalitatean. Gaixotasunaren eboluzioak berak, ugalkortasun gaitasuna murriztu dezake, minbizi hematologiko, linfoma, garun-hipotalamo, barrabil edo obulutegiko minbizien ondoriozko azoospermia edo obulazioaren oztopatzearen ondorioz. Gaixotasunari aurre egiteko tratamenduei dagokionez, kirurgia bidezko ugalkortasun organoen erauzketa gerta daiteke, ugalkortasun gaitasuna zuzenki asaldatur. Bestalde, Terapia Berrien eta Imunoterapiaren efektu gonadotoxikoak ezagutzeko ikerketa gehiago behar dira oraindik, baina argi dago Kimioterapia edo Erradioterapiaren ondorioz gonada toxizitatea izateko arriskua bereziki altua dela, ondorio ezkor gehiagoren artean, aipaturiko infertilitatea edo behin betiko esterilitatea eraginez^{3,6,9}.

Kimioterapiak obulutegiko zonalde kortikaleko fibrosia eta asaldura baskularra sortzen du obulutegian, folikuluen suntsiketa modu azkar batean aktibatuz, horrela erreserba obarikoa murriztu eta obulutegien gutxiegitasuna edo behin betiko menopausia eragin dezake. Barrabiletan berriz, ehun interstizialaren fibrosia eta hialinizazioa eragiten du, Leyding zelulen funtzioa asaldatu eta espermatogonien kalitate eta kantitatean eragin dezake, infertilitatera bideratuz. Horrez gain, asaldura hormonalak, atzeranzko eiakulazioa eta disfuntzio sexuala eragin ditzake⁶.

Eragina desberdina izango da pazientearen eta farmakoaren ezaugarrien arabera. Pazienteari dagokionez, tratamenduaren aurretik duen erreserba obarikoa emakumeen kasuan, espermatozoideen kalitatea gizonezkoen kasuan, eta adina kontuan hartzea garrantzitsua da etorkizuneko arriskua baloratu ahal izateko. Farmakoei dagokienez berriz, agente Alkilantez osaturiko tratamenduek eragin gonadotoxikoagoa sortzen

dutela ikusi da; linfoma, leuzemia edo bular minbizietan Kimioterapia Konbinatuan erabiltzen diren Mostaza Nitrogenatuaren deribatuek, besteak beste Ziklofosamidak, esterilitatea eragiteko portzentaila altua dutela ikusi da. Kimioterapia Sistemikoak ere, minbizi kasu gehienetan efektu gonadotoxiko altuagoa duela frogatu da, arriskua handiagoa izanik dosi altuagoa jasotzen duten pertsona zaharragoetan^{3,6}.

Modu berean, Kimioterapia bezain kaltegarria izan daiteke **Erradioterapia** ugalkortasunarentzat. Kontuan hartuz obulutegi eta barrabiletan lokalizatutako erradioterapia arrisku faktore primarioa dela disfuntzio gonadala sortzeko, irradiazio kranealaren ondorioz ardatz hipotalamiko-hipofisiario-gonadalean ere hormona desoreka sortu eta obulazioaren edo espermatogenesiaren prozesua oztopatu dezake. Gorputz osoak irradiazioa jasotzen duenean berriz, obulutegi gutxiegitasunaren tasa %72tik %100ra izango da⁶.

Irradiazioa pelbisaren inguruan ematen bada, emakumeetan obozitoei eragin eta umetokiko endometrioia baskularki asaldatu dezake, fibrosia eta estenosia sortuz ehun baginalean, disfuntzio sexuala ere erraztuz. Gizonezkoetan berriz, dosi, irradiazio gradu, barrabilen gertutasun eta adin aurreratuagoa izanda, arriskua ere handiagoa izango da⁶.

Egoera honen aurrean, fertilitatea mantentzeko aukerak zubi gisa jokatu dezake minbizia gainditu ondorengo etapan guraso izateko nahia duten pertsonetan, fertilitatea mantentzeko aukerak paziente bakoitzaren arabera moldatu behar izanik; izan ere, paziente guztiek ez dute arrakasta lortzeko aukera berdina^{6,13}.

Emakumeen **fertilitatea mantentzeko aukera** nagusien artean aurkitzen da kriopreserbazioa, obulu ez fekundatuak edo iada fekundatuak izoztean datzan teknika. Aurreprestaketa gisa, 10 egunetan zehar Gonadotropina Askatzailea den Hormonaren (GnRH) antagonistak auto administratzearen bidez obulutegiaren funtzioa kontrolpean mantenduko da, ondoren obozitoen garapena eragin eta bagina bidez obuluak lortzeko. Minbiziaren aurkako tratamendua segidan hastea indikatua dagoen kasuetan, obulutegiko ehuna izoztea aukera bat izan daiteke modu esperimentalean; baita Trasposizio teknika ere, obulutegia umetokitik aldentzean oinarritzen dena irradiaziotik babesteko^{14,15}.

Gizonezkoen fertilitatea mantentzerako orduan, gaur egungo aukera bakarrenetarikoa da espermatozoideen kriopreserbazioa. Etorkizuneko espermatozoideen baliagarritasuna bermatzeko, beharrezkoa izango da hauen egoera eta kalitatea baloratzea tratamendu gonadotoxikoaren aurretik. Lagin ez funtzional edo esperientzia sexual murrizta duten

nerabeen kasuan, espermatozoideak lortzeko elektroieiakulazioa eta ehun testikularraren kriopreserbazioa erabili daiteke, modu esperimentalean¹⁵.

Teknika hauek laguntza mota bat suposatu arren, modu berean karga psikologikoa handitu dezakete pazienteengan. Erabakia diagnostiko momentutik oso gertu hartu behar dela kontuan hartuta, pazienteek segurtasun falta senti dezakete, presiopean hartutako erabakiaz damutuko diren beldur¹¹.

Pazienteak sarri, gazteegiak sentitu daitezke familia baten eraketan pentsatzeko, konplexua izanik, beraien etorkizunerako funtsezkoa izango den aspektu bati buruzko erabakiak hartzea horrelako trauma fisiko eta psikologiko bat bizitzen ari direnean. Horrela, paziente hauen gurasoen papera ere kontuan hartzekoa da, berdin sentitu ditzakete antsietate edo kezka sentimendu horiek, heldutasun nahikoa ez duten beraien seme-alaben erabakietan parte hartuko dutelako, besteak beste^{11,16}.

Literaturaren arabera, adin honetako pazienteen ezagupen falta nabaria da, sarri eztabaidatu gabe gelditzen den gai honen inguruan; baliteke aukerak beranduegi proposatzeagatik edo tratamendua ez atzeratzeagatik, besteak beste. Prozesu hau guztia kudeatu eta erabakiak hartzerako orduan, antsietate eta autoestimu zein identitatearen inguruko kezkak izan ditzakete, egoera honi aurre egiteko prest ez daudela sentituz. Ondorio gisa, ikusi da pazienteen %27ak soilik onartzen duela fertilitatea mantentzeko teknietan parte hartzea gizonezkoetan, eta portzentaila hau oraindik ere baxuagoa dela frogatu da emakumeetan^{3,7,11,16}.

Pazienteak erabaki egokiena hartu ahal izateko, egoeraren erabateko ezagutza behar du, eta horretarako ezinbestekoa da bere ezaugarri eta gaitasunen araberako informazioa jasotzea. Ikerketen arabera, fertilitatea eta hau mantentzeko teknikei buruzko informazioa jaso duten pazienteek prestatuagoak sentitzen direla adierazten dute epe luzera larritasuna kudeatu ahal izateko, erabakiarekin loturiko damu gutxiago azalaraziz^{8,16}.

Adin pediatrikoko eta helduagoak diren pazienteekin alderatuta, 15–39 urte bitarteko adin erreproduktiboan dauden paziente hauei buruzko ikerketak murrizagoak dira; honek erraztuz, gaur egun, oraindik ere ildo jakin bat ez jarraitzea ugalketaren inguruko aholkularitza eskaintzeko¹⁷.

Minbiziari aurre egiten dioten pertsona kopurua handituenez, gehiago azpimarratu da etorkizuneko bizi - kalitatean tratamenduen albo ondorioek zein eragin izaten dituzten.

Gai honekiko kontzientziaren handipenak, geroz eta paziente gehiagok laguntza behar izatea eragin du, beraien ugalkortasun gaitasuna mantentzeko edo honekiko erabaki bat hartzeko. Horrela, garrantzitsua da egoera honetan aurkitzen diren pazienteen **kezkak, lehentasunak eta bizi izan ditzaketen emozioak ezagutzea**, modu berean, dituzten **beharrak ere identifikatzeko**. Era honetan, bai prozesu onkologikoan zein etorkizunerako familia planean, beraien autonomia errespetatuz eta paziente gisa ahaldunduz, modu informatu batean erabakiak hartzeko aukera izan dezaten, guk osasun profesional gisa, sostengu jarraitua eskaintzen diegun bitartean^{11,13}.

Helburua:

Prozesu onkologiko baten ondorioz Kimioterapia edo/eta Erradioterapia jasotzen duten nerabe eta heldu gazteek, ugalkortasunaren inguruan dituzten beharrak identifikatu eta aztertzea.

Metodologia:

Diseinu mota:

Lan honen helburuari erantzuna emateko, literaturaren errebisio kritikoa eramango da aurrera.

Barneratze eta kanporatze irizpideak:

Bilaketa prozesuari ekiteko, kontuan hartuko dira ondorengo **barneratze irizpideak:**

Data: argitarapen dataren filtroa ezarriz, 2010etik 2020ra bitartean argitaraturiko artikuluak soilik barneratuko dira, eskuragarri dauden artikuluaren artean informazioa ahalik eta eguneratuena izateko.

Hizkuntza: Ingelesez eta gaztelaniaz idatzitako artikuluak barne hartuko dira, menperatzen diren hizkuntzak izateagatik.

Ikerketa motak: Ikerketa kuantitatibo, kualitatibo eta literaturaren errebisio sistematikoak barne hartuko dira, baita Gida Klinikoak ere. Batez ere, helburuari erantzuteko baliagarria eta aberasgarria izango delakoan, kualitatiboak diren artikuluak bilatuko dira.

Lagina/ populazioa: 15-39 adin tarteko, edozein motako minbizia duten edo bizi izan duten pazienteak barne hartzen dituzten artikuluak hartuko dira kontuan, prozesu onkologikoaren fase desberdinetan egon daitezkeenak eta fertilitatearen prebentzio, infertilitate edo esterilitatearen inguruko esperientziaren bat bizi izan dutenak edo bizi izango dutenak, minbiziaren aurkako tratamendu jakin baten ondorioengatik (Kimioterapia edo/eta Erradioterapia). Aipatutako adin tarte zehatz honen inguruan dagoen literatura falta dela eta, adin tarte zabalagoak ikertzen dituzten artikuluak barne hartuko dira, beti ere, ikerketa hauek aztertzen duten populazioaren bataz-besteko adinaren barnean, lan honetarako aukeratu den adin tarte zehatza baldin badago; era honetan ahalik eta literatura gehiena biltzeko asmoz.

Pertsona hauen guraso, bikote edo familiarreko, eta baita arreta eskaintzen duten osasun arloko profesionalen (erizain, mediku edo psikologo) esperientziak ikertzen dituzten artikuluak ere barneratuko dira, fenomeno honen inguruko esperientziarik zabal eta aberasgarrienak jasota, helburuari erantzun ahal izateko.

Bestalde, ondorengo **kanporatze irizpideak** hartuko dira kontuan:

Hizkuntza: Ingeleseztan eta gaztelaniaztan ez diren artikuluetan alde batera utziko dira, menperatzen ez diren hizkuntzetan idatzirik artikuluetan izateagatik. Modu honetan, artikuluetan itzultzerako orduan gerta daitezkeen gaizki ulertuak saihestu eta soilik oinarritzko hizkuntzan idatzirik artikuluetan zuzenean irakurtzera joko da.

Ikerketa motak: Ikerlarien iritzi, tesi edo gradu amaierako lanak alde batera utziko dira, argitaratutako artikuluetan zientifikoei adierazten duten ebidentzia maila eskaintzen ez dutelako.

Lagina/populazioa: Fertilitatea mantentzeko tratamenduen emaitza eta eraginkortasunari buruzko artikuluetan baztertu egingo dira, teknikan zentratutako artikuluetan izanda, esperientzia pertsonalak bilduko ez dituztelako.

Minbiziarekin erlaziorik ez duten fertilitate prebentzio, infertilitate edo esteriltasunaren inguruko esperientzia eta beharrei buruzko artikuluetan baztertu dira, minbizia edo honen aurkako tratamenduen ondorioztako fertilitate galera arriskua bizitzen duten pertsonen esperientzia ezagutzea bilatzen delako.

Hurtzarotan bizitako minbiziaren ondoriozt gerora infertilitatea garatu duten pazienteei buruzko artikuluetan baztertu dira. Ikertu nahi den populaziotik kanpo gelditzeaz gain, hurtzarotan eskaintako fertilitatea mantentzeko teknika ezberdinak, honi lotutako zailtasunak, informazio mota eta bizitako esperientziak desberdinak izan daitezkeelako, nerabe edo gazte-heldu garaian bizitakoekin ezin alderatuz^{14,15}. Zehazki 15 urtetik beherako paziente pediatrikoek eta 39 urtetik gorako minbizidun paziente helduek ikerketen laginen batzuetan osatzen badute, lanetik kanpo geratu dira.

Minbizi ginekologiko baten ondoriozt kirurgian obulutegi edo barrabilen eruzketa jasan duten pazienteak soilik barne hartzen dituzten artikuluetan baztertu dira; zuzenean esteriltasunarekin lotzeagatik eta honek infertilitate arrisku posiblearekin lotutako ezjakintasun sentimendua gaitzetsi dezakeelako.

Zonalde geografiko jakinetako kutsu kulturala duten artikuluetan ez dira barne hartuko, mendebaldeko kulturatik kanpo dauden herrialdeetan sozialki fertilitatea eta honen baitan hartzen diren aspektuen izaera desberdin interpretatu daitezkeelako.

Bilaketa prozesua:

Lortu nahi den helburua barne hartzen duten kontzeptuak ondorengo hitz gakoetan banatu dira: “Prozesu Onkologikoa”, “Ugalkortasuna” eta aplikatu nahi den adin tartea (15-39) “Adolescents and Young Adults (AYA)” kontzeptuarekin ezagutu arren, bi hitzen artean osatzen da “Nerabe eta Heldu gazteak”. Ondoren, “Kimioterapia” eta “Erradioterapia” kontzeptuak barneratzeko, “Minbiziaren aurkako tratamendua” erabiltzen da eta azkenik “Beharrak” hitz gakoa, helburuarekin zuzenean erlazionaturiko artikulua aurkitzeko aukera izateko. Horrela, kontzeptu hauek ingelesera itzuli eta datu base bakoitzean probatu dira. DeCs aplikazioari esker, lengoia naturalarekin erlazio zuzena duten deskriptoreak bilatzen dira; konjugazioak (Fertility Preservation, Chemoradiotherapy), sinonimoak (Wish, Wants, Priorities) eta aberasgarria suerta daitekeen kasuetan baita antonimoak ere (Infertility), kontzeptu-taulan kokatuz (**1.Eranskina**).

Datu base bakoitzerako deskriptoreak ezarrita, hauek konbinatuz bilaketa-ekuazio desberdinak osatzen dira, lan honen helburuari erantzuteko artikulua baliagarriak topatu ahal izateko. Horretarako, **Medline, Cinhal, Cochrane, Embase, Cuiden eta PsycINFO** datu baseetan, American Society of Clinical Oncology (ASCO), National Comprehensive Cancer Network (NCCN) eta European Society of Medical Oncology (ESMO) Onkologiako orrialde ofizialetan, RNAO eta NICE ebidentzian oinarritutako baliabide elektronikoetan eta Elsevier (DOYMA) aldizkari elektronikoan bilaketak egiten dira, bilaketa-taulan ikus daitekeen bezala (**2. Eranskina**).

Deskriptore desberdinekin ekuazioak aurrera eraman ahala, kontzeptu berdinari izena emateko hainbat deskriptoreen konbinaketak erabiltzen dira emaitza arrakastatsuek lortzeko. Emaitza ez emankorrak lortuz gero, lengoia naturalean erabilitako kontzeptuetara ere jotzen da, deskriptoreen konbinaketekin batera, bilaketak murriztea edo behar den kasuan bilaketa zabalagoak lortuz. Horrela, deskriptorerik egokienak identifikatzen dira, artikulua askotan errepikatzen direla ikusita, bilaketa-ekuazioen konposagai gisa erabili eta emaitzak ahalik eta aberasgarrienak izateko.

Artikuluen hautaketa prozesua:

Datu baseetan ekuazio desberdinekin egindako bilaketak zehaztu ondoren, 1248 artikulua aurkitu dira. Emaitza horietatik artikulua errepikatuak baztertu (388 artikulua) eta 860 artikuluen izenburuak lehendabizi, eta gero “*abstract*”ak irakurtzeari ekin zaio, proposaturiko helburuari egokien erantzun zezaketen 96 artikulua identifikatuz.

Gainontzeko 764 artikulua baztertuak izan dira helburuari ez erantzuteagatik (339 artikulua) edo barneratze irizpideak ez betetzeagatik (425 artikulua). Puntu honetan, aukeraturiko 96 artikulua hauek “*full text*” eran lortzen saiatu da, horietatik 64 artikuluen testu osoak aurkituz, gainontzeko 32 artikulua baztertuz.

Testu osoko 64 artikulua horiek gainetik irakurrita, bigarren hautaketa bat egiten da 49 artikulua kanporatuz, barneratze eta kanporatze irizpideak kontuan izanik laginak aipaturiko ezaugarriak ez betetzeagatik edo ikerketen diseinua egokia ez izateagatik (22 artikulua) eta helburuari ez erantzuteagatik (27 artikulua). Horrela, datu baseetatik 15 artikulua hautatzen dira.

Datu baseez gain, pausu honetan Onkologiako orrialde ofizialetan ere bilaketak egiten dira American Society of Clinical Oncology (ASCO), National Comprehensive Cancer Network (NCCN) eta European Society of Medical Oncology (ESMO) orrialdeetan hain zuzen. Baliabide hauetan artikuluen bilaketarako, aurretik erabilitako kanporatze eta barneratze irizpide berdinak erabilia, 2 Gida Kliniko lortzen dira.

Ebidentzian oinarritutako baliabide elektronikoetan ere bilaketak egiten dira, RNAO eta NICE n hain zuzen, baita Elsevier (DOYMA) aldizkari elektronikoan ere, baina ez da emaitza baliagarriarik lortzen.

Aukeraturiko ikerketa guztietatik, 14 artikulua irakurketa kritikoa jasan dezakete: 9 artikulua kualitatibok, 3 artikulua kuantitatibok eta 2 artikulua mixtok. Modu honetan, ikerketa motaren arabera, dagokion irakurketa kritikoa gidoia betetzen da artikulua bakoitzarekin, artikuluek eskaintzen duten informazioa ahalik eta ebidentziatuena izan dadin. Bestalde, artikulua kualitatibo eta kuantitatibo bana hautatzen dira interesgarrienak izateagatik, sakonki aztertu eta analisi kritikoa egiteko (**3.eranskina**). Azterketa prozesu honen ondorioz, ez da bazterketa gehiagorik gauzatzen; artikuluek metodologiko muga jakinak izan arren, gaiari buruz aurkituriko literatura oso murrizta delako. Beraz, hasiera batean aukeraturiko artikulua guztiak lan honen emaitzak jorratzeko baliagarritzat hartzen dira. Artikuluen bilaketa eta aukeraketa prozesua fluxu diagraman islatuta agertzen da (**4. Eranskina**).

Artikuluen analisisia:



Lehenengo eta behin, aukeraturiko artikulua guztiak zehaztasunez irakurri eta aztertzeari ekin zaio, dokumentu bakoitzean lan honen helburua erantzuteko adierazten diren arlo

garrantzitsu eta nagusienak identifikatuz; hala nola, autoreen arteko puntu amankomunak eta kontraesanak. Eskuratutako informazio guztia sailkatu edota kategorizatu ahal izateko, artikulua bakoitzarekin laburpen-terratu bat osatu da **(5. Eranskina)**.

Horrela, informaziorik esanguratsuena, ondorengo kategorietan antolatu da zuhaitz kategorialean: alde batetik pazienteek sentitzen duten informazio beharra, bestetik ingurukoekin dituzten erlazio, interakzio eta sostengu beharra, eta azkenik, asistentzialki Osasun Sistemari egiten zaizkion eskakizunak **(6. Eranskina)**.

Emaitzak eta eztabaida:

Lan honen helburuari erantzuteko 17 artikulu hautatu dira, ondorengo ikerketa motetan banatuak: 9 artikulu kualitatibo, 3 artikulu kuantitatibo, 2 artikulu mixto, literaturaren errebisio sistematiko 1 eta 2 Gida Kliniko (*1.irudia, 2.irudia*). Ondorengo herrialdeetan egin dituzten ikerketak biltzen dituztenak: Estatu Batuak(4), Australia(4), Suezia(2), Erresuma Batua(2), Alemania(1), Herbehereak(1) eta Kanada (1). Gida klinikoak berriz, bat Estatu Batuetan sorturikoa da eta bestea Europa mailan.



Artikulu hauetan oinarrituta, emaitzak arlo desberdinetan banatu dira: lehenik, pazienteek sentitzen duten **informazio beharra**, ondoren **ingurukoekin dituzten erlazio, interakzio eta sostengu beharra**, eta azkenik, **asistentzialki Osasun Sistemari egiten zaizkion eskakizunak**.

1. INFORMAZIOAREN BEHARRA:

Identifikaturiko beharretan informazio beharra oinarritzkoena den aldetik, eskaini beharko litzatekeen informazio honen **edukia** aztertzea garrantzitsua da, ugalkortasun galera arriskua eta honi aurre egiteko alternatibak izanez eduki honen oinarri. Informazioa iristarazteko **garaia** eta **formatua** zehazteak ere berebiziko garrantzia izango du informazioaren kalitatea bermatzeko.

1.1. Informazioaren edukia:

ESMOren¹⁸ Gida Klinikoak adierazten duenez, tratamenduaren ondoriozko kalteak sortutako infertilitatea baloratzeko zifra zehatzik ez dagoenez, paziente bakoitzak arriskuan dagoela jakiteko eskubidea du eta aldi berean, arriskuan sentitu behar da. Honek lotura zuzena du artikulu gehienetan adierazten denarekin: tratamenduaren ondoriozko ugalkortasun galera arriskua existitzen dela jakitea eta honen aurrean dituzten aukerak ezagutzea da pazienteek amankomunean exigitzen duten aspektu bat, ondoren guraso izateko aukerak hautatu nahi izan ala ez. Hala ere, artikulu gehienetan ikusi da informazio hau ez dela behar adina lantzen.

Ugalkortasun galera arriskuari buruzko informazioa:

Benedict et al.ek¹⁹ eginiko ikerketan ikus daitekeen bezala, 18-35 urteko arriskuan aurkitzen ziren emakumeek 5 itemez osaturiko galdetegi bat igaro zuten non infertilitate, menopausia goiztiar, fertilitatea mantentzeko aukera eta metodo alternatiboen inguruan jasotako informazioa nahikoa izan zen adierazi behar zuten. Aspektu hauei buruzko informazio falta adierazi zutenek, kezka gehiago eta bizi kalitate baxuagoa izatearekin erlazio zuzena azalarazi zuten (%57-71). Aipagarria da ere, bizi kalitate baxua adierazi zutenen %10a soilik sentitu zela informatua, eta %87ak gida eta gomendio gehiago behar zuela adierazi zuela.

Gainera, pazienteen fertilitate egoera prozesu onkologiko guztian zehar kontrolatzen ez dela ikusi da, beraien fertilitatea zenbateraino murriztu den jakin gabe, sarri euren egoera fertila ondorioztatu behar izaten dute^{20,21}. Informazio indibidualizatu falta honek pazienteak arrisku desberdinen aurrean jarri ditzake Wright et al.ek²² eginiko ikerketa kualitatibo semi-estrukturatuan, 12-24 urte bitarteko pazienteek adierazten duten bezala; alde batetik, antikonzeptibo gisa erabili dezakete infertilitate ustea, Sexu Trasmisio Bidezko Infekzioak edo plangintzatu gabeko haurdunaldien arriskua handituz, eta

bestetik, itxaropen ideia faltsuak eman daitezke, behin eta berriro haurdunaldien bila arituz, arrakastarik gabe.

Halliday et al.ek^{21,23} eginiko zenbait ikerketa kualitatibo fenomenologikotan, emakumeek behin minbizia igaro ondoren adierazten duten esperientzietatik ondorioztatu daiteke, ziurgabetasun egoera honek bi taldeen erdian sentiarazten dituela minbiziaren ondoren: alde batetik fertilak ez direla sentitzen dute, baina aldi berean aukera guztiak galdu ez dituztela pentsa dezakete, segurua ez den informazioa jasotzen dutelako. Gainera ugalkor izateko adin mugarekin topo egiteak, haurdun geratzen saiatu ahal izateko denbora mugatua eta presio nabaria sentiarazten die. Ezjakintasun egoera honek antsietatea eta frustrazioa eragin arren, itxaropenarentzako ate bat ere zabalik uzten duela ikusi da, muturreko ziurgabetasun eta itxaropen sentipenak gailenduz.

Beraz, nahiz eta zenbait pazienteei ugalkortasun gaitasunaren ezjakintasunak noizbait haurdun geratzeko itxaropena eskaini, tratamenduaren aurre zein jarraipen prozesu osoan zehar fertilitate egoeraren balorazio eta monitorizazio zehatza egitea beharrezkoa ikusten da, pazienteen egoera erreala isladatu eta antikonzeptibo beharraren informazioarekin batera, bizitza sexual osasuntsua mantentzeko.

Guraso izateko aukerei buruzko informazioa:

-Fertilitatea mantentzeko aukerak:

Jayasuriya et al.ek²⁴ eginiko ikerketan, 1987 eta 2016 bitartean fertilitatearen inguruko kontsulta izan dutenei, fertilitatea mantentzeko teknikak itxaropena transmititzen die, gurasoen %80ak eta pazienteen %77k horrela adieraziz, Benedict et al.en²⁰ ikerketako 15-39 urteko emakumeek arrisku eta presio gutxiago sentitzearekin erlazionatzen duten bitartean. Honez gain, osasun emozional eta mentala eskaintzen dietela baieztatzen dute Yee S et al.²⁵ eta Garvelink et al.ek²⁶ eginiko galdetegietan, minbiziaren prozesuan borrokan jarraitzeko indarra transmititzen diena hain zuzen, etorkizunean ez damutzeko eta dena galdu ez dutela sentitzeko.

-Aukera ez biologikoak:

Pazienteen iritziz, familia kontzeptua erabat bideratzen da alderdi biologikora, gainontzeko aukerak aipatu arren, soilik superfizialki lantzen diren bitartean. Horrela, ohikoa da 25-30 urte bitarteko paziente bikotedunak izatea fertilitatearekin loturiko kezka erreproduktibo gehienak dituztenak, gaur egungo gizarte ereduari jarraituz, biologikoki haur bat izateko garaian eta plangintza hastapenetan aurkitzen direlako (7. *Eranskina*)²⁷.

Izan ere, espektatiba guzti hauek arriskuan ikustean, guraso izateko aukera ez biologikoen aipamen ezak, fertilitatea mantentzeko aukeren aurrean porrot egiten duten pazienteak aukerarik gabe uztera behartzen ditu. Beraz, beharrezkoa izango da hasieratik fertilitatea mantentzeko teknikez gain, alboratuak geraturiko aukera ez biologikoen informazioa eskaintzea (adopzioa, harrerako haurrak...)^{20,22}.

1.2. Informazioaren formatua:

ESMOren¹⁸ Gida Klinikoak adierazten duenez, aurrez-aurreko ahozko oinarrizko informazioaz gain, ahal den guztietan informazio idatzia eta/edo online dauden baliabideak eskaini behar dira pazienteek ahalik eta informazio baliagarri gehien jaso dezaten. Kontsultaturiko artikuluetan adierazten denez, idatzizko informazioa oraindik gehigarria da, nahiz eta baliagarria izan gaiari buruzko oinarrizko informazioa eskaintzeko, ahoz emandako informazioa berriro ere kontsultatu ahal izateko edo oinarrizko zalantzak argitzeko^{28,29,30}. Hala ere, soilik idatzizko informazioa jaso duten pazienteek eduki hau ez irakurtzeko eta deskonfiantza sentitzeko arriskua dutela ikusi da Armuand et al.en³¹ ikerketan. Behar indibidual bakoitza asetzeko berriz, erreferentziatzea beharrezkoa izango da; hala nola gomendaturiko web orrialdeak edo espezialisten kontaktua eskainiz³².

1.3. Informazioa emateko garaia edo momentua:

Richter et al.²⁸ eta Armuand et al.ek²⁹ eginiko ikerketan, parte hartzaileen %92 inguruk tratamendua hasi aurretik fertilitate galera arriskuari buruz hitz egiten dutela jakinda, ahalik eta azkarren gaia eztabaidatzea gomendatzen da pazienteek erabakia hartzeko nahikoa denbora izan dezaten eta aldi berean ez dadin minbiziaren aurkako tratamendua atzeratu. Nahiz eta ikerketa batzuk bigarren mailako gai gisa tratatzen dela salatu^{26,29}, Logan et al.ek³⁰ eginiko errebisioan adierazten da sakonki landu gabeko informazio motz eta zehatza egokia dela, pazienteak ez direlako prest sentitzen informazio detailatuagoa jasotzeko. Izan ere, Yee et al.ek²⁵ eginiko elkarrizketetako 31-40 urteko emakumeak bikotedunak (%73,2) eta haurrik gabeak (%90,2) direla kontuan hartuz, emozionalki estresatuak sentitzen dira oso denbora laburrean bi arriskuen aurrean aurkitzen direlako, minbiziaren mehatxua eta fertilitatearen galera arriskua, gainkarga eta beldurra ere bikoiztuz. Horregatik, Armuand et al.³¹ eta Lee et al.en³² ikerketetan adierazten den bezala, ahal den neurrian informazioa denboran hobeto sailkatzea eskatzen dute pazienteek, hobeto asimilatu ahal izateko.

Horrela, fertilitate galera arrisku zein honen aurrean hartu daitezkeen aukerei buruzko informazioa errazteko unerik egokiena diagnostikoaren ondorengo eta tratamenduaren aurretiko garaian dela azpimarratzen da, baina momentu zehatzari dagokionez, oraindik iritzi desberdinak daudela esan daiteke.

2. SOSTENGUAREN BEHARRA:

Gurasoen edo orokorrean **familiaren** presentzia sostengu nabarmena dela ikusi da prozesuaren etapa bakoitzean, **bikoteak** duen paper garrantzitsua azpimarratuz ugalkortasunaren inguruan hartu beharreko erabakietan.

2.1.Guraso/familia:

Wright et al.²², Logan et al.³⁰ eta Armuand et al.ek³¹ eginiko ikerketetan, mutilik gazteenei fertilitatearen gaia artatzean eta hau mantentzeko tekniketari gurasoak presente izatea deserosoa suertatu arren, prozesuan zehar hauen presentzia nabarmenki garrantzitsua dela aipatzen dute, zainketen kargaren zatirik handiena eta beraien seme alaben inguruko erabakiak hartu behar izaten baitituzte. Horrela, denbora falta eta inpaktuaren eragina dela eta, biziraupenean zentratu eta fertilitatearen inguruko gaia alde batera uzteko arriskua dagoela ikusi da guraso hauek.

Beste alde batetik, pazienteek adierazten dute behin minbizia igarota, familiako kideek presio jakin bat transmititzen dietela pozik sentitu behar izateko; nolabait errudun sentiaraziz bizirautea lortu arren, fertilitatearen gaiarekin kezkatuta jarraitu eta konformatzen ez direlako³¹.

2.2.Bikotea:

Bikotea sostengu nagusia izateaz gain, pazientearen erabakietan parte hartzen duen pertsona ere badela ikusi da, erreprodukzio plan bat aurrera eramateko garaian batik bat. Hala ere, kontuan hartu behar da zein puntutaraino baldintzatzen duen bikotearen iritziak fertilitate plangintza, erabaki nagusia pazientearen fertilitatea mantentzea dela argi izanik^{28,30}.

Beste alde batetik, aurretik aipaturiko fertilitate egoeraren ezagutza falta, bikotea aurkitzea zaildu dezakeen aspektu bihurtu daitekeela ikusi da, intseguritateak ez erakargarriak eta etorkizuneko bikote planetarako oztopo gisa sentiarazten baititu Benedict et al.²⁰ eta Armuand et al.ek³¹ eginiko ikerketetako parte hartzaileak. Horrez

gain, bikotearen abandonu beldurra, sortu daitekeen tentsioa eta erlazioaren ziurgabetasuna dira ikerketa hauetan adierazten diren kezka nagusiak.

3.AURRE-EGITE ESTRATEGIAK:

Pazienteek fertilitate galera arrisku honen aurrean dituzten **aukera posibleak baloratzea** beharrezkoa dela ikusi da. Aurretik aipaturiko teknikek itxaropena eskaintzeaz gain, parte hartzaileen gehiengoei beraien kabuz erabakia hartzeak bakea eta lasaitasuna transmititzen diela kontuan hartuta, hasierako momentutik lehentasunei eta etorkizuneko plangintzei buruzko hausnarketa egin behar dute, denbora igaro ahala gai honekiko kontzientzia handitzen joan daitekeela ikusi baita^{20,24,25,26}.

Emozioen arteko konfrontazioa saihestea beste landu beharreko alderdi bat izango da; prozesua onartzea(%20), patuaren muga bat dela pentsatzea (%20) edo emozio positiboek helduz egoera kudeatzen ikastea lagungarria suertatuz (%34) Benedict et al.en²⁰ iritziz.

Emakumeek bereziki, muturreko emozioen sentipena adierazten dute Halliday et al.ek^{21,23} eginiko ikerketa kualitatiboetan, zaila izanik konfrontazio hau saihestea; izan ere, haurdun dauden emakumeenganako inbidia sentitu arren, behin beraien haurdun geratuta, “benetako ama” baten esperientzia bizi ezin izatea azpimarratzen dute, haurdunaldiगतिक pozik baina minbiziaren itzuleraren ondorioz etorkizuneko haurraren edo norbere heriotzaren beldur direlako aldi berean.

4.ASISTENTZIA

Asistentzialki pertsona hauen beharrak asetzeko profesional bakoitzak duen **ardura** zehaztea eta honen arabera, pazienteak **deribatzea** beharrezkoa dela ikusi da. Horrela, gaur egungo osasun sisteman ematen diren **hutsuneak** identifikatu dira, batik bat **arreta hobetzea beharrezkoa duten populazio taldeak** eta **kalitatea hobetzeko** zenbait aspektu azpimarratuz.

4.1. Informazioa ematearen ardura:

ESMO¹⁸ eta NCCNen³³ Gida Klinikoek adierazten dutenez, erreprodukzio adinean dauden paziente guztiek ahal den azkarren tratamenduaren plangintza prozesuarekin batera onkofertilitate gomendioak jaso behar dituzte (minbizi mota edo estadioa kontuan

hartu gabe). Hala ere, gomendioak indibidualizatu egin behar dira; minbizi, tratamendu, interes pertsonal eta adinaren arabera, zainketaren zati esentziala izanik.

Hala ere, errealitatean ikusten da Yee et al.²⁵ eta Garvelink et al.ek²⁶ diotenez, pazienteek fertilitate galera arriskua aurretik ezagutu gabe, posibilitate gutxiago dutela honi buruz eztabaidatzeko, profesionalen eskutik beti ez delako informazio hau errazten; inongo ezagutzarik ez duten pazienteak %41,5 izatera iritsiz. Ikerketa hauetan, soilik onkologoen erdiek (%49k eta %46,9k) hasi zuten fertilitateari buruzko eztabaida, gainontzeko eztabaidak beste osasun profesional batzuekin (%18,2) edo familia artekoekin (%35) hasita beste iturri batzuetatik informazioa aurkitu ondoren (%60ak Internet bidez). Gainontzeko pazienteen %30ak osasun profesionalekin eztabaidatzeko gaia beraiek atera behar izan zuten, nolabaiteko karga eta intseguritatea sentituz, profesionalak ez direla bertan zentratzen ikusita^{20,28,30}.

Gainera, sekula haurrik izan nahi ez dutenek, fertilitatea galtzeko arriskuaren jabe direnean guraso izateko aukera planteatzen hasi daitezkeela ikusita, beharrezkoa izango da osasun profesionalek pazienteari fertilitatearen inguruko informazioa ematearen erresponsabilitatea izatea, pazienteak berez eskatu gabe. Izan ere, desinformazio honek gaiari buruzko aurreiritzi eta uste okerrak erraztu ditzake, fertilitatea mantentzearen erabakiak atzeratuz eta zenbait kasutan (%55) eztabaida hauek tratamendu gonadonotoxikoaren ondoren gauzatzen badira, etorkizunean fertilitatea mantentzeko aukerak murriztuz^{26,30,32}.

Deribazioa:

ESMO¹⁸ eta NCCNko³³ Gida Klinikoen arabera, fertilitate arloarekiko interes nahikoa adierazten duten pazienteak 24 orduren barruan deribatu egin behar dira funtzio sexualean gerta daitezkeen aldaketa eta antikonzeptiboan erabilera eztabaidatzeko. Yee et al.²⁵ Young et al.ek²⁷ eginiko ikerketetan, pazienteen %97,6ek espezialista batekin (endokrinologo, psikologo eta fertilitatea mantentzeko tekniken inguruko osasun profesionala) harremantzea garrantzitsutzat jotzen badute ere, arriskuan dauden pazienteen %19a soilik deribatzen dela ikusi da tratamendu antineoplasikoaren aurretik. Horrela, onkologoak, fertilitatearen inguruko asistentzia eskaini ezin badu, beste osasun profesional batengana deribatuzko ardura izango du, nahiz eta berrikusitako ikerketetan ez joera hori ikusi.

4.2. Osasun arretan identifikatu diren hutsuneak:

Populazio zaugarrien arreta hobetu:

Alde batetik, **emakumeekiko arreta** identifikatu da jarraian aipatuko diren zenbait aspektu tekniko eta soziologikoengatik hobetu beharrekoa; eta bestetik, populaziorik **gazteena** guraso izateko ideiarekiko duten erlazioa dela eta, izan liteke zaugarriena.

Emakumeak:

ESMO¹⁸ eta NCCNko³³ gida klinikoei obarioen funtzioa monitorizatzea eta orokorrean fertilitatearen inguruko jarraipena egitea beharrezkoa dela diote. Behar izanez gero, enbrioi/obozito edo obulutegiko ehunaren kriopreserbazioa eztabaidatzeko, betiere osasun profesionalak tratamendu antineoplasikoa atzeratzea egoki ikusten badu obozito estimulazio ziklo baterako.

Hala ere, hainbat ikerketetan ikusi da guraso biologiko izateko desioa duten emakume kopurua kontuan hartuta, oso gutxi direla fertilitatea mantentzearen alde jokatzeko dutenak. Hala nola, Benedict et al.ek²⁰ dionez, emakumeen ehuneko handi batek guraso izateko nahia izan arren, %32ak soilik jotzen du fertilitatea mantentzeko tekniketara, kopuru hau %12 eta %2 ra jaitsiz Young et al.²⁷ eta Armuand et al.en²⁹ ikerketetan.

Emaitza hauen arrazoietako bat izan daiteke emakumeei iristen zaien informazio murrizta eta nahasgarria. Armuand et al.ek²⁹ adierazten duenez, soilik emakumeen %14ari eskaintzen zaio teknika hauei buruzko informazioa, gehienbat amenorea izango dutela azalduz (%81); haurdun geratzeko posibilitate murrizta (79%) eta menopausia goiztiarra izateko aukerak (71%) gutxiago aipatzen diren bitartean, bakoitzak desberdin interpretatzeko arriskuarekin. Gainera, ikerketa berean gizonezkoen parte hartzea baxuagoa izan arren, ikusi da fertilitate aukerei buruzko informazio gehiena eta tekniken erabilera handiena espermatozoide bankuan izan dela (**8. Eranskina**), emaitza berberak adieraziz Ritcher et al.²⁸ eta Flink et al.ek³⁴ eginiko ikerketa kualitatiboak ere (**9. Eranskina**). Prediktore nagusia sexua izanik, emakumeekin alderatuz, gizonezkoek fertilitatea mantentzeko aukerei buruzko informazioa jasotzeko 14 aldiz probabilitate gehiago dutela frogatu da; 35 urte baino gutxiago izatea nahikoa izanik emakume batek baino bost aldiz lehenago informazioa jasotzeko, emakume batek baldintza gehiago bete behar dituen bitartean. Gainera behin fertilitatea mantentzeko aukeren berri izanda ere, tekniketarik kanporatuak izaten badira, ikusi da ez dutela baztertze irizpideen argudiorik

jasotzen. Desparekotasun hau batik bat, haurrak izan nahi dituzten emakume bikote gabe gazteenetan ematen da edo tratamenduaren aurretik haurrak dituzten emakumeetan (haur gehiago izan nahi ez dituzten ustean) beraien kezken artean besteak beste bikote heterosexualik izan gabe fertilitatea mantentzeko posibilitatea, etorkizuneko haurra kaltetzearen beldurra edo haurdunaldiak minbiziaren itzulera eragitearen kezka nabarmenduz. Azken kezka honi lotuta, hormonodependienteak diren minbizia izatea, haurdun geratzeko edo fertilitatea mantentzeko teknikei uko egiteko arrazoi bihurtu daiteke, minbiziaren progresioan izan dezakeen eraginagatik, Armuand et al.^{29,31} eta Lee et al.³²en ikerketetan aipatzen den bezala^{20,22,25,26,30,34}.

Modu honetan, emakumeei teknikei buruz eskaintzen zaien informazio murrizak erlazio zuzena duela ikusi da tekniken parte hartzearekin. Horrela, emakume eta gizonen arteko informazio irispeneren eta zerbitzu eskaintzaren desberdintasun argia kontuan hartuta, beharrezkoa ikusten da emakumeak populazio zaurgarri gisa identifikatu eta informazioaz gain, denbora eta orokorrean zerbitzu gehiago eskaintzea, tekniken konplexutasunak, emaitza zalantzakorrek eta denborak sortzen duten mugak ezin justifikatuz osasun profesional eta pazientearen artean ematen den informazio falta.

Adinez gazteak:

Wright et al.²² eta Young et al.en²⁷ artikuluetan agertzen diren pazienteen esperientzietan oinarrituta, gazteagoak diren pazienteek informazio gutxiago jasotzen dutela ikusi da, adinarekiko ulermen maila kontuan hartu behar izanez, informazioa moldatu eta arriskuaren garrantziaz kontziente izateko. Gizonezko gazteenen kasuan, osasun profesionalek gurasoei modu errutinario batean esperma bankua gomendatzen dietela kontuan hartuta, pazienteak presente izan gabe gaiari buruzko elkarrizketa bat izatera eramán ditzake. Honek, prozesua onartzeko zailtasunak eragiteaz gain, lotsa eta ia-ia beraiak aukeratu gabe diagnostikotik egun gutxira masturbatuarazi beharra izatera eramaten dituzte. Horregatik pazienteek prozesu honetan aktiboki parte hartzea eskatzen dute, gurasoek babestu egin nahi dituztela ulertu arren, baztertuak eta iruzur egin dietela sentitzen dutelako^{20,31}.

Kontsulten kalitatea hobetu:

Berrikusitako ikerketen arabera, komunikazio gaitasuna beharrezkoa izango da osasun profesionalen artean; izan ere, pazienteak kezkatuak sentitzen dira profesionalen ikuspuntu desberdinak direla eta jasotako informazio kontraesankorragatik. Beste alde

batetik, onkologo eta fertilitatean adituak diren profesionalak bereiztea eskatzen dute, arlo bakoitzak ez dezan eragin erabakian^{20,30,32}. Benedict et al.en¹⁹ ikerketan ikusten den bezala, parte hartzaileen %60ak oraindik sostengu eta informazio gehiago behar du erabakiak hartu eta osasun sistema nola kudeatu jakiteko.

